



SUA

Nazario Maiz

PATXI EZKIAGA

**KANTURAKO
ETA
OTOITZERAKO
POEMAK**

	KANTA	Egilea	Orria
1	Agnus	Richard	4
2	Agurrak	Iñaki Zelaia	5
3	Barkamen hitz	Père Marcel Godard	6
4	Behar zaitut, Jauna	Juan M ^a Udabe	7
5	Doan... Doan...	Carol Owens	8
6	Gauaren magal ilunak	Juan M ^a Udabe	9
7	Gera zaitetz	William H. Monk	10
8	Giza-arrantzale	Cesareo Gabarain	11
9	Hau da	Tomás Aragües – Juan M ^a Udabe	12
10	Haundia zara, Jauna	Coral	13
11	Hitzez hitz, Jaun ona	Coral	14
12	Hondartzan barrena	Stavros Xarhakos	15
13	Ilunaurrean	M. A. Rivière – J. Berthier	16
14	Jaun onak narama	Thomas Koschat	17
15	Jauna zugar bizi nahi dut	Mikis Theodorakis	18
16	Lur guztiak	Coral	19
17	Maitasun kanta Jaunarentzat	M. A. Rivière – J. Berthier	20
18	Maite zaitut	Mikis Theodorakis	21
19	Munduaz arduratu	Iñaki Zelaia	22
20	Nire otoitza	Juan M ^a Udabe	23
21	Zein haundia zaren, Jauna	"O Store Good" suediar abesti herrikoia	24
22	Zu zara Jesus Jauna	D. Julien	25
23	Zu, Jauna	G. Holst, "The Planets", op. 32 (Jupiter)	26
24	Zurekin dantzara	Iñaki Zelaia	27

Agnus

Jainko Jaun onbera, errukiorra,
zukan dut nik aurkitzen magal samurra;
Jainko Jaun ona,
zukan dut nik aurkitzen maitasuna;
barkatu, Jauna!

Jesus, Jaun onbera, Bildots otzana,
zukan dut nik aurkitzen babes hurbila,
Jesus, Jaun ona,
zukan dut nik aurkitzen barkamena;
erruki, Jauna!

Salbamen labeko Ogi beroa,
zukan dut nik aurkitzen jainko kemena:
salbamen Ardo,
zukan dut nik aurkitzen bizi poza,
zure bakea!

Agurrak

Nora joan dira lore guztiak?
galdetzen dugu udazkenean;
non gelditu dira haur jolasak?
zahartzaroaren ateetan.

Noiz ernalduko dira pipilak?
galdetzen dugu udaberrian;
noiz jantziko dituzte ezpondak
edertasunaren koloreetan?

Eta inoiz sinetsiko al dugu
barrearen alaitasunetik
hitz larrien isiltasunera
garamatzala bizi beharrak?

Heriotzak bere pentagraman
abesten badigu ere agurra,
bizitza ez dela sekula amaitzen
mikaztasunaren hareatzan?

Bizitza ez dela sekula amaitzen.

Barkamen hitz

Barkamen hitz ezti ez bazina,
Jesus Jaunak gugan bizi duen mina...
nola zama egin arina zeharkatu zeru urdina,
behingoz gairiditurik ezina?
Barkamen hitz ezti ez bazina...

Bihotz zauri sakon ez bazina,
gurutzean Semearengan josia,
zelan izan txingar gorria, argi bero baten hazia,
arragoko sugar bizia?
Bihotz zauri sakon ez bazina...

Ogi bero gozo ez bazina,
gizakioi maitasunez luzatua,
nola lotu mahai santuan itxaropen zahar galduak,
gure bihotz gosez ahulduak?
Ogi bero gozo ez bazina...

Poz-iturri alai ez bazina,
negu gorri ilun goibelen eguzki,
zelan izan gintezke irri, ostatuko sugar ilinti,
erromesen kantu irrintzi?
Poz-iturri alai ez bazina...

Berritasun dirdai ez bazina,
betidanik sortutako hasiera,
nola egin zure bidera, zure ezkutuko etxera,
salbatuon bihotz jaieraz?
Berritasun dirdai ez bazina...

Behar zaitut, Jauna

Hitz eta izenen gainerik, behar zaitut, Jauna.

Basa hauetatik haraindi, behar zaitut, Jauna.

Muga guztien gainerik, behar zaitut, Jauna.

Mundu hauetatik haraindi, behar zaitut, Jauna.

Hitz eta izenen, baso eta mugen

Jainko maitea, zaude nirekin.

Gau eta egunen, min eta pozen

Jainko maitea, zaude nirekin.

Gauaren ordu tristean, behar zaitut, Jauna.

Minaren ordu hitsean, behar zaitut, Jauna.

Albaren ordu argian, behar zaitut, Jauna.

Pozaren ordu alaian, behar zaitut, Jauna.

Doan... Doan...

Gure Jaunagan birjaio naiz,
bere indarrez alaitu naiz,
bere eskutik natorkizu
bizi gaitezen zoriontsuki.

*Jaunak doan, doan maite zaitu;
doan, doan zuk.
Izan zaitez bere goiko hatsez
itxaropen egile.*

Gure Jaunagan sendotu naiz,
bere izenean ausartu naiz,
bere etxetik zureganantz,
joka dezagun giza bideki.

Gure Jaunagan joango naiz,
azken ibaiko ertzetarantz
bere altzoan izango dut
zorion bete betierean.

Gauaren magal ilunak

Gauaren magal ilunak
irrika biziz dakartza
zugana gure nekeak,
zugana gure ametsak.

Errukiz jantzirik zaude,
errukiz zaitugu Ama,
onetsi gure asmoak,
barkatu gure hobenak.

Bideko azken helmugan,
besoak zabal-zabalik,
fereka gaitzazu gozo,
har gaitzazu zuk altzoan.

Gera zaitez

Gera zaitez gaur, Jauna gurekin,
guk ez daukagu Zu beste argirik;
Zu gabe, Jesus, ta urrun zugandik
gure bihotzak ez du atsedeni.

Gera zaitez gaur, Jauna gurekin,
fedea piztu dezan ametsik;
ibil gaitezen zure eskutik
gau ta egun, Jauna zaude gurekin.

Gera zaitez gaur, Jauna gurekin,
zurekin ez da zeru ilunik,
gure bihotza zugar suturik
gau ta egun, Jauna zaude gurekin.

Giza-arrantzale

Zu, Maitemin, zu, Itsaso,
nire irrika guztien jomuga,
nire begien argi beroa.

*Jauna, zure asmoen hondartzan
zure deiak ukiturik nauka,
zure hitza, hitz larri, hotz gorria,
bekit gaur arraun eta izar.*

Zeuk hartu nire eskuak,
mila lehiaz, kresalak minduak,
neguko enbaten zauri biziaz.

Ez daukat beste gogorik,
zure kaian bizitzea baizik,
zure txalupan eta zurekin.

Hau da

Hau da agindutako lur berria,
esperantzaren errainuz betea,
eternitatearen lur bizia.

Hau da errukiaren lur gozoa,
barkamenaren hitz, kantu ederrez
gizakion bihotzean ehoa.

Jauna, hau da eman didazun lurra,
bertan sustraituta egin dezadan
nire bizitza edertasun ikurra.

Haundia zara, Jauna

Haundia zara, Jauna,
sorkari guztien gaindi,
sutea su denetik
mendia denetik mendi.
Gora Zu, zarelako
sutearen ilendi.

Hurbila zara, Jauna,
erratu guztien argi,
uhaina ur denetik
irria denetik antsi.
Gora Zu, zarelako
gure hegadaren habi.

Maitasun zara, Jauna,
zorion ororen hiri,
malkoa min denetik
orbaina denetik zauri.
Gora Zu, zarelako
gau beltzaren goiztiri.

Hitzez hitz, Jaun ona

Hitzez hitz, Jaun ona, doakizu gure otoitza,
gizon xumearen oihu ozen, itogaitza;
entzun beza zure bihotz xamurrak
ama batena bailitza.

Doinuz doinu, Jauna, doakizu gure kanta,
txori, ostots, ibai-jauzien mintzo xarmanta;
goza beza zure bihotz onberak
ederrena lezake-ta.

Pausoz pauso, Jauna, doakizu gure urratsa;
haizez haize gure bizitzako iparrorratza:
gal ez dadin eromen batek jota
bego gugan zure Hatsa.

Hondartzan barrena

Hondartzan barrena goaz muga zaharrera,
urdinez jantzita etsipenaren eztena.

*Ubarroien antzera gurutzean josita,
esperantzak pitz gaitzan jainkotasun betera.*

Labarrak hauts beza enbataren bits gordina,
urratzen gaituen zauriaren hitz samina.

*Ubarroien antzera gurutzean josita,
esperantzak pitz gaitzan jainkotasun betera.*

Ilunaurrean

Ilunaurrean zure irria
eguzkiz janzten denean,
su gori horren beroak
goza ditzala gure hotzak.

Ilunaurrean zure hitza
erruki orbaina denean,
barkamen horrek, Jaun ona,
senda ditzala gure minak.

Ilunaurrean gure helmuga
ostatu ametsa denean,
zure etxeko argiak
zuzen ditzala gure urratsak.

Aitarekin bat zaren Horrek
egin gaitzazu zureak;
jainkotasun poz beteak
bidera ditzan gure grinak.

Jaun onak narama

Jaun onak narama bizibidetik,
iluna denean nahiz egun argiz;
edonon, edonoiz, dago nirekin,
bakea dezadan haren eskutik.

Enbata bortitzak astintzen banau,
harengan babesik aurkituko dut;
kaiaren promesa salbamen ikur,
zorion abaro, gozo eta leun.

Jauna zugar bizi nahi dut

Jauna, zugar bizi nahi dut,
eta zurekin bat eginik,
zure doinuaren soinu
nire bihotza jantzirik;
zure baitan izan nahi dut
samurtasunaren ikur,
barkamenaren poz irri.

Nire eskutik nahi zaitut
egin behar dudan bidaian,
zure errukia lagun,
itsas handian nahiz kaian;
gauetz ez nadin beldurtu,
minak ez nazan itsutu
izar uxoen garaian.

Maitasunez egin nauzu
esperantzaren hitz ozena,
ahotsik gabeen oihu,
nekatuentzat eztena;
hil dezadan etsipena,
argi giza nahasmena
zure izpien errainuz.

Lur guztiak

Lur guztiak damaizu, Jauna,
dagokizun gorespena:
gau ilunak amets isila,
egunsentiak ozena.
Gizon-andreon hitz totelak
gure minaren eztena;
zure etxeko biztanle izanik
zurea duzu garena.

Maitasunez egin gaituzu
pitz dezagun maitasuna:
xuxurlatzeko hitz arina,
garraiatzeko astuna.
Bultzada denez eta denok
sorbaldan daramaguna,
ez bedi bihur zure haurrak
izatearen isuna.

Maitasun kanta Jaunarentzat

Zure bideak gauzka, Jauna,
zurekin liluraturik,
inoiz irrika ez dezagun
beste xederik, beste ametsik.

Zure egiak gauzka, Jauna,
zurekin maitemindurik,
gure iluna pitz dadin
zure barruko su bizitik.

Zure biziak gauzka, Jauna,
zurekin guztiz loturik,
inoiz alde ez gaitezen
maitasunezko zure altzotik.

Maite zaitut

Laztan samur, bizitzaren bultzagarri,
laztan mingots, minez ernari.
Maite zaitut samur nahiz mingots,
lo nahiz atzarri, maite herioz haraindi.

Ezpain ezti, bidaiaren ameslari,
ezpain mikatz, odol emari.
Maite zaitut ezti nahiz odol,
gose nahiz gari, maite herioz haraindi.

Magal hurbil, esperantzen babesgarri,
magal urrun, hotzez hilgarri.
Maite zaitut hurbil nahiz urrun,
zigor nahi sari, maite herioz haraindi.

Munduaz arduratu

Munduaz arduratu nahi dut, Jauna,
galtzaileen zama sorbaldan hartu,
zauriaren irri goibel zurruna
izan ez dakigun zorigaitz ikur.

Munduaz arduratu nahi dut, Jauna, munduaz arduratu.

Loreak landatu nahi ditut, Jauna,
bakardade hotzak argiz berotu,
ederrez apaindu giza doinua,
borreroen hitza betiko isildu.

Loreak landatu nahi ditut, Jauna, loreak landatu.

Kriseilu sentitu nahi zaitut, Jauna,
guztion barrua dezagun piztu;
gugandik uxatu gaueko iluna,
bizitzan izanik izar dirdaitsu.

Kriseilu sentitu nahi zaitut, Jauna, kriseilu sentitu.

Nire otoitza

Zeru urdina da nire otoitza,
eguzkiaren beroa,
zelaietako kilker apala,
haraneko galsorua.

Graziaren biluztasun hutsez
jantzi nahi nuke gogoa,
nire doinuek bete dezaten
Jainko oihartzunez geroa.

Izar kantua da nire otoitza,
samurtasun du izena,
ipurtargien ahots isila,
uraren doinu ozena.

Bihotz barruan hozka nahi nuke
kriseiluaren eztena,
iluntasuna izan ez dadin
gure lehiaren azkena.

Egunsentia da nire otoitza,
lehen izpien eztanda,
hasiera gardenen aukera,
errukizko besarkada.

Urratsez urrats bizi nahi nuke
barkamenaren bultzada,
bihotz berria izan dakigun
esperantzazko taupada.

Zein haundia zaren, Jauna

Ene, Jauna, zure izen haundia
miragarri zait mundu guztian;
zeruen gain zure argi ditzira,
ipar orratz ostadar ibaian.

*Zure aintza abesterakoan
zein haundia zaren, Jauna!
Zure izena deiadarkatzean
zein haundia zaren, Jauna!*

Umetxoen bular otzanetatik
doakizun gorespen zolina;
abereen orru ozenetatik
naturaren izanahi samina.

Zure aintza...

Itsasoko uhainen kaleetan
zatoz, Jauna, giza hondartzara;
txalupa eder, ahul, kulunkarian
naramazu jainkozko kaiara.

Zure aintza...

Eta zure ur isil, gardenetan
murgildurik eman nahi dut hatsa;
Azken lore, azken kantu epela,
Azken argi, zorion ametsa.

*Zure aintza abesterakoan
Kuzkurtzen naiz zure altzoan.
Zure izena deiadarkatzean
Babesten naiz zure etxolan.*

Zu zara Jesus Jauna

Zu zara, Jesus Jauna, gure salbatzailea.

Mundua gose dabil salbamenaren bila;
heriotza ez dadin gure helmuga isila.

Askatasun ametsak gauzka liluraturik;
Geroaren urratsa ez dakigun mugarri.

Bil gaitzazu .zurekin errukizko altzoan,
Maitasunez loturik besarkada beroan

Zu, Jauna

Zu, Jauna, orain guztien egile eta indar,
Zu, Jauna, lehen guztien babes, barkamen mahats,
Zu, Jauna, gero guztien arragoentzat sugar:
zaude gurekin beti, ez gaitzazu ahantz!
Zu gabe, gure bihotza beldurrez dabil, koldar.
Zu gabe, izuen bitsa gara, herio itzal.

Zu, Jauna, gure ametsen xede eta bulkada,
Zu, Jauna, gure bidaien urrats eta helmuga,
Zu, Jauna, gure txalupen arraun eta aingura:
zaude gurekin beti, zakizkigun ipar!
Zu gabe, gauak gaitzake galduen artean jar.
Zu gabe, ezin gintezke izan inoren izar.

Zu, Jauna, giza nekeen atsedeen eta magal,
Zu, Jauna, giza ekaitzen urdin eta ostadar,
Zu, Jauna, giza zaurien orbain nahiaren ibar:
zaude gurekin beti, goiz nahiz ilunabar!
Zu gabe, lur elkor gara, bide ertzeko lahar.
Zu gabe, ez dugu ezer argi, hilezkor, aratz

Zurekin dantzara

Biolin batek, Jauna, eraman gaitzala
zurekin bat eginik, zurekin dantzara,
besoak zabaldurik, eskutik hartuta,
maitasunaren minez gaztetan bezala.

*Zurekin bat eginik, Jauna,
zurekin bat denok dantzara.*

Ibai ertzeko sahas, zeruko ilargi,
dantzaren zirimolan duzue bat egin,
erbestetuon amets, Babilonia berri,
gure bihotz goxoen poztasun iturri.

*Zurekin bat eginik, Jauna,
zurekin bat denok dantzara.*

Izuak ez gaitzala bidean itsutu,
ez hotzaren eztenak zugandik urrundu;
egin gaitzazu zure laztanen ukendu,
beldurraren gogorra dezagun bigundu.

*Zurekin bat eginik, Jauna,
zurekin bat denok dantzara.*